

# Eske pertsven bilduma

## I

Bilduma edo «corpus» honen egiteko nere jakitateak mugatua izan naiz; beraz ene lan honetan ez bila argitasun berririk, baina ekai hutsezko meta bat eta galdekizun asko. Bilduma honen egiteko erabili ditudan lanak hauek dira:

«*Cancionero Popular Vasco*» R. M. Azkue (Boileau ta Bernasconi, Bartzelona). Hemen biltzen ditut Azkuek bereizten zituen kantuak (festivos, de ronda eta abar:.).

«*Cahier de Chanson*» Pierre Duleau, Lorraine Bentaberrikoaren khandore bilduma 1949.

«*Manuscrit 202*» Leopold Irigaray-Albadak (Pariseko Bibliothèque Nationale-an).

«*Igela*» Martxoa-maiatza 1963 (Pariseko euskaldun heterodoxoen errebista). Azken hiru horiek Zuberoko pertsuentzat. Bizkaiako pertsuentzat Azkuez-z kanpo: «*Euskal kantak*» (Bilbao, 1960) (Deun Ageda) Gipuzkoarentzat Azkuez kanpo, «*Eskual Kantuak*» Hernani argitaldaria Hendaia, Santa Agedako kantuak, eta «*Egan*» Santa Ageda-Deun Ageda (1956). Nafarroarentzat Azkue, eta erreserba askorekin «*Euskaldunak*» Ormaetxea-Orixe (1950 Toberak, Azeri dantza) ta «*Ekaitza*» José M. Satrústegui, Jakin Arantzazu-Oñati 1973. Azkenik Lapurdi eta Nafarroa beheerako «*Charamela*» Baionan argitaratua, Santibatek andere...

Uzta hunen zatikatzeke, sailkatzeke eta eratzeko, lege gabeko hautapen baten egitera bortzatua izan naiz: eskualdeka ala gaika, berezi ote behar n-tuen? Irakurtzeak, batzutan bi koplak bestetzutan hamar koplako kantuekin gertatzen nintzala erakutsi dit; bestalde erresuma, herri eta euskalkien muga gairi, haien gairi dabilan ontasuna da eske-pertsua; kantu antza, tankera, gisa berdinekoa Bilbotik Maulera kurritzen da, batzutan ere koplak eta hitz berdinak. Beraz gaika berezi ditut eskepertsuak jaien arauera: Urteberrikari kantuak, Kanderailukoak, Lerdo edo Eguen zurikoak, Santa Ageda eta Santibatekoak, San Kasiano eta San Nikolasenak, Maien kantua, Errege erreginetakoak, Azeri eskea eta azkenik Toberak. Baliman hutsak izango dira eta

## D. PEILLEN

hutsuneak ere. Jai eta besta horien berririk ez dut emaneko, Iruñan JMSa-  
trustegik argitaratu liburuak negu eta udako jaiari buruz, erdaraz gai hau  
argitzeko beharrezkoak izango zaizkitzu.

Kopla bakoitzaren ondotik lekuaren aipamena ematen dut —ezagutzen  
dudanean— eta kantu batu batean kopla zein herritakoa den ere. Adibidez  
Santa Agedako kantuetan kantariak berek egiten dituzten bereixketak eta  
haien aurkezpena jarraikiaz: agurrak, eskea, etxeko jaunari, etxekandreak...  
eta eskerrak, edo erreprotxuak. Lan hau abiatu dut, beste euskalzaleen ziri-  
kagarri eta aspaldian konturatu baikara neurtitz horietan gure Erdi-Harroko  
olerkiaren altxorra begiratu dugula. Askok errango dute herri-olerkia, poesia  
herrikoia dela, baina noiz hasi da herri olerkia eta olerki landuaren bereiz-  
kuntza European? XVI garren mendean, XV garrenean? Gainera gure sines-  
men zaharraren, gure giza-funtsaren betikotasuna dariote bertsu zahar horiek.

Bertsu horiek frantsesez jartzeko lana hartu nuen eta hala utzi dut asko-  
ren argigarri, herri-euskara mota guzien artean errezago ibiltzeko; oharrak  
ordea euskaraz emanen ditut. Beti gogoan izan dut holako monografiak eus-  
karaz eman behar ditugula, baldin egun batean sintesisa erdara batean argi-  
taratu behar badugu. Hola uste dut euskarari errespetu gehiago irabaziera-  
ziko diogula ezi ez eta askotan egiten dugun bezala «euskaraz egitea» «euska-  
raren gainean egitea» nahasiz. Uda honetan ezagutu euskal unibersitarioei  
eskaintzen diet lan hau, baita euskaldun kantari berriei.

Kantu horien doinu eta neurriaz jardutzeko, eztabaidatzeko ez naiz nor;  
bakarrik dioket soinuaren aldetik gehienetan 6/8 neurrikoak bezala azaltzen  
direla, euskal kantuek barrenean ohi dituzten aldaketekin, hala dira Bizkaian  
*Urte barri 'koak'*, Nafarroan *Urgoiena*, Nabarnizeko *San Kasiano*, Arroazuko  
*Or goian goian ... Santa Ageda* eta *San Juaneko, eguen Zurikoak*, berriz, 2/4  
edo 3/4. Zuberoako *Albadak* : 5/8. Zein diren neurri eta doinu zaharrenak  
jakiteko Iñaki Nuñez-ek hasi lana jarraiki behar liteke Arrasateko konputazai-  
lea erabiliz edo beste bat. Halaxe Nunez-ek erakutsi zigun eresi zaharren  
doinu-izla Europako besteekin konparatuz, gure Berterretxen kantorea, mu-  
sikaz gaia bezin zahar zela, hots XV mendekoa.

Berterretxen eresiarekin jarraitzeko eresi horrek Zuberoako albadetan  
ikusten den poetika eta neurketa berdinak ditu, beraz gure eske pertsu horiek  
Erdi Harokoak izan behar dute batzuk eta orduko gisa eginik besteak.

### BERTERRETX

Haltzak eztu bihotzik,  
ez gaztanberak ezürrik;  
e'nian uste erraiten ziela  
aitunen semeek gezürrik.

### ALBADA

Hur ondoetan lexarra,  
zelü goretan izarra;  
etxe hortako X... horrek  
ürhez dizü bizarra.

## ESKE PERTSUEN BILDUMA

Bertsu tankera hori Allande Oihenartek XVII garren mendean zaharizat erizten omen zuen. Santa Agedako, Zuberoako alabadetako, Ihautiriko kantu gehienetan, guti gora behera, honela emana ikusten dugu: zortzi piko-tako bertsuak 1a, 2a, 4a garrenak elkarrekin asonantzian eta 3b garren bertsuak, bestelako silabaz bukatzen den hamarreko bat: Zortziko txipia da.

Urte berriko pertsuak, berriz, extira aurekoak bezala beti laukunak, badire saikunak: lehen biak 4+4 eta besteak 5+4 pikokoak.

Nork eta zer xedeetan kantatzen duten oroitarazi behar, gaur eguneko folklore talde batzuek ahaztuerazi baidezakegute? Gazteak eta ezkondu ga-beak dira eskean dabilzanak; batzuek diotenez dotea irabazteko, baina beti diru apur bat biltzeko; arraultza eta txingarra (txistorra); olloa eta lukainka eskatzen dute; azkenik beren artean afari bat eta dantzaldi bat izateko. Beraz eske horiek jaialdi guztien inguru gertatzen dira eta bereziki dakizkigun pagano-egunen inguruan: Urte zaharrez (Eguberriz), Ihautiriz, Maiatzean, Ekaina, eguzki-pestan (Donibane) eta Urte berriz.

Zer estakuru, zer aitzakirekin agertzen diren jenden artera? Kantatzeko arrazoinak ez dira argi ageri, lehen begi ukaldian diotenez: usua, kostuma, oitura, legea gatik egiten dituzte Ihautiriko, Kanderailuko, Urte Berriko, Urte zaharreko inguruak. Ohitura hori hain zahar baldin bada ez ote da pagantasuna? Santu bat edo santa bat ohoratzeke arrazoinak ere badira, santu hori patroin bat edo aintzinako painko bat delarik.

Herri batetik bestera ez da egun berdina hautatzen. Gorostiagak «*Eus-kerak*» n (Bilbao III, 1958 51-57 or.) erakutsi du nola euskaldun eguntegiak zahar usaina duen, tokika ez baitira aldaketak, kanbio ofizialak onhartu. Irailari Lapurdin *buruila* diote, urteko lehen ilabetea; Epifania Apalazio heretikuen usaina ekartzen digu. Horrek gogora ekarri dit ez ote ziren beti eske kantuak, urte hastapenean gehienik ematen, baina urtea Martxoan, Buriulan, Urte zaharrez, Eguberriz hasi baita azken bi mila urteetan eta bali-man Euskaldun zaharren artean Ekainan, Ekia edo Eguzkia jauresten zute-nean, hala ez baita euskalduna alda erreza, herri batetik bestera ez dira egun berdinean, berdinean eta elkar iduri diren eresiak kantatzen.

### I. UR BERRIA: UR GOIENA, UR BARRENA

Ohargarria da nola Bizkaian eta Nafarroa garaian bereziki, Urte berriko neurtitzak gorde eta begiratu dituzten. Kantu hauek zaharrenak izango dira, baliman euskaldunak pagano ziren denborako elizkizunen ondarrak.

Naski latinezko *annus* hitza itzultzeko, *urte* badugu, baina hitz horren herroari kasu egiten badugu Ur: *aqua* hitza da iduriz gure urtea, urak egiten

## D. PEILLEN

duen bide bat, aldi mugatu baten barrenean, dela. Urte, elurte, eurite, bezala lizateke. Ur-te hori *Ur berria* eskainiz hasten da herri horietan. Benedikatu gabeko ur hori, etxe bakoitzari eskaintzen da. Eskaintza hori laguntzen duen kantuak dio: UR GOIENA eta UR BARRENA. Zer adierazi nahi da horrekin? Ibaiak Euskal Herrian ez dira bat batean jausten eta igaiten, beraz beste urik ez den ber itsasoak izan behar: Ur goiena, ur gorena da, hots itsasoa gorenik dagoen haroa eta Ur barrena, itsasoa barnenik den aldia; eta zein dugu egun hori *equinoxius* bat ezpada? orduan baitira urak gorenik (altuenik) eta barnenik (bajuenik). Horri erantzuteko Satrustegi jaunari galdetu behar, nik behintzat nahiko xehetasunik ez baitut bildu. Honelako adierazpenarekin euskaldunek bi urte bagenituzke, bata Martxoan eta bestea Buruila edo Iraila delakoan hasten; hain zuzen alde batetik bi hilabete horietan dira eske kantu asko ematen. Bestaldetik Bizkaiako Gabika herrian kantatzen dute:

Urte zarrak yoan da  
barriak etorri.

Urtea hainitzki gisa erabiltzea, egunerozko mintzoan ote da? ala hitz horiek *lexia* edo erran-aira mugatu eta fitsatu bat dira? Ez lizateke harritzeko Gorostiagak, *aste*, lehenago, hamabost egunezko arte baten izendatzeko erabilia zela *igande*, ilargiaren igaita zela erakutsi baitu. Egiaz gure eguntegian —te atzizkia hainitz erabilia da: igante, urte, hilabete, aste. Nondik nahi Uraren jai horrek pagan-usain handia dauka oraindik Bizkaiian eta Naparroan.

Lapurdin eta Gipuzkoan kantu horiek zahar usain hori galdu dute eta aldaketa hori bereziki seinalatzeko, pertsuak *Dios te Salve* batekin hasten diran:

Dios te Salve Ongi etorri  
Gabon jainkoak daukula.

Ur goiena, ur barrena  
Urte berri, egun ona — *ren orden* (Naparroa)  
eta  
Urtebarri, barri  
txarri belarri — *ren lekuan* (Bizkaiian)

Urteberriko kantu zahar horietan bestelan, beste eske pertsuetan diren koplak badira, iduri-idurikoak. Azkuek ez zuen kantu horiek ikertzeko astirik izan bakarrik dio pagan-oitura bat erakusten digutela.

**II. SAN NIKOLAS, SAN GREGORIO**

San Mikolas delakoa iparraldeko herrietan, asko ezaguna de Santa Claus izenarekin, haurrei urte-azkenean jostailluak ekartzen omendizkiote. Hala da Alemanian, Bretania Handian, Frantziako iparralde eta ekialdean. Parisen eta azken urteetan Frantzia guztian barreiatu sineskeria hori, eta desgiristintotua *Père Noël* izena eman diote. *Tio Navidad* delako hori bizi baldin bada azken liturgia garbiketak San Mikolas hil digu eta eguntegitik kendu behar liteke, ipuiñetako saindu bat omen baita. Areta aintzinan zioten Mirako apezpikua zela eta mirakuillu askoren egile. Errusian hainitz adoratua izan da, «Txudoboretz» izen goitikoarekin. Oraiko Elizak ez dio errez sinetsi, gazitegian puskatu haurren berpiztea. Arrantzaleen eskolako humeen, bidaiazaleen saintua zenak bere Abenduaren 6, eliza jaia galdu du, baina herri-eguntegientan beti bizirik dago.

Euskal Herrian eskolako humeek kopla horiek kantatzen dituzte San Nikolasi erdizka erdaraz

*San Nikolas coronero confesero*  
 Mari Andres alarguna dontzellea  
*cantaremos alegria ...*  
 Aingeruak gara  
 zerutik jatsi gara  
*una limosnita*  
*por amor de Dios.*

Pertsu horiek Nafarroa erdaldunduan kantatzen direnekin, berdindu litezke, San Gregorio artean sarturik eta San Gregorioren ohoretan Martxoaren 12 an Urraul goihenan kantatzen dute

San Gregorio coronado  
 y el «obispo» bien honrado  
 San Nicolás en la puerta  
 esperando la respuesta  
 Cantaremos una  
 cantaremos dos  
 una limosnita por el amor  
 por el amor de Dios

(Urraul Goiena Munibe fasc. I/IV)

## D. PEILLEN

Ohitura hori edo erdarazko koplak behintzat eskola maisu ala apezek dute sartu Euskal herrian; nondik nahi den «obispo» deritzaiona haur bat da, buruan kaiota (mitra), eskuan apezpiku makila, bereter (monaguillo) arrokekin eta eraztun bat behatzean, haurren, haur eskeleen gidari ibiltzen dena. Ohitura hori Garinoain, Oroz Betelu, Artzibarren ezagutua da eta euskarazko pertsuak izango ditu. Otxandio eta Elgoibarren erderaz diote:

San Mikolas coronado  
es muy ondrado (sic)  
Aquí estamos cuatro  
cantaremos dos  
una limosnita  
por amor de Dios.

Bizkaian, Nabarnizen adibidez, eskolako humeak zirenean eskean ibiltzen San Kasianoren izenean. Saindu hori IV. mendean eskola maisua omen zen; eskolako hume paganoen artean utzi zuten, agintariiek kargulantek, izkiriatzeko orratzekin hil zezaten. Eliza pesta Abustuaren 5ean. Azken liturgia garbiketek baztertu dute.

### UR GOIENA, UR BARRENA, UR BERRIA \*

1a

Ur goiena, ur barrena  
urte berri, egun ona,  
pakearekin osasuna  
onarekin ondasuna.

(Urdiain, Satrústegui)

*Eau la plus haute, eau la plus basse  
bonne année, bonne journée,  
avec la paix la santé  
avec le bien la richesse.*

(Haute Navarre)

1b

Etxe onetan sar dadiela  
bakearekin osasuna  
bakearekin osasuna,  
onarekin ondasuna,

(Urdiain, Azkue)

*Que dans cette maison pénètre  
avec la paix la santé  
avec la paix la santé,  
avec le bien la fortune.*

(Haute Navarre)

\* SATRÚSTEGUI, J. M. "Canto ritual del agua en Año Nuevo". "Fontes Linguae Vasconum", (1971) 7. pg. 35

ESKE PERTSUEN BILDUMA

1c

Ur goiena, ur barrena  
urte berri egun ona,  
egun onaren señailea  
emen dekargu ur berria.  
Irikizazu ataria  
presta dezazu gosaria.

(Imotz, Azkue)

*Eau la plus haute, eau la plus basse  
bonne année bonne journée,  
symbole de la bonne journée  
voici (que) nous apportons l'eau neuve.  
Ouvrez la porte  
préparez le déjeuner.*

(Haute Navarre)

1d

Ur goiena ur barrena  
urte berri egun ona;  
etxe onetan sar dedila  
pakearekin ondasuna.

Larraun, Azkue)

*Eau la plus haute, eau la plus basse  
bonne année, bonne journée;  
que dans cette maison pénètre  
avec la paix la fortune.*

(Haute Navarre)

1e

Pakearekin ondasuna,  
onarekin osasuna,  
gure baratzean belar ona:  
Jainkoak digula gau ona.

Larraun, Azkue)

*Avec la paix la fortune,  
avec le bien la santé,  
dans notre jardin l'herbe bonne  
que Dieu nous donne la nuit.*

(Haute Navarre)

1f

Txiri txiri txanponeko,  
urte berri eguneko;  
nik dakarrat ur berria  
etxekoandre giltzaria  
idikizazu ataria.

(Ugarte, Azkue)

*Tchiri, tchiri de petite monnaie  
pour le jour du nouvel an;  
j'apporte l'eau nouvelle  
maitresse porte-clefs  
ouvrez la porte.*

(Haute Navarre)

2a

Izotzetan, elurretan  
abenduko gau luzeetan  
beste guziak oian eta  
gu, gaixuok, oinutsetan.

(Urdiain, Azkue, Satrustegui)

*Dans les gels et les neiges  
durant les longues nuits de novembre  
tous les autres au lit et  
nous, pauvres de nous, pieds nus.*

(Haute Navarre)

## D. PEILLEN

2b

Izotzetan, elurretan  
abenduko gau luzeetan;  
gu gaixuok emen gabilta,  
otzak iltzen oinutsetan.

(Imotz, Azkue)

*Dans les gels et les neiges  
durant les longues nuits de novembre  
pauvres de nous, déambulons (par) ici  
le froid nous tuent les pieds nus.*

(Haute Navarre)

3

Abade jauna berorren  
lizentziarekin  
nahi nuke kantatzen hasi  
nere lagunekin.

(Urdiain, Satrústegui)

*Monsieur le curé, avec votre  
honorabile permission  
je voudrais commencer à chanter  
avec mes compagnons.*

(Haute Navarre)

4

Egun onak ematera  
zure familiari  
nere deseioa da ta  
lehenikan berorri.

(Urdiain, Satrústegui)

*Pour souhaiter le bonjour  
à votre famille  
car c'est mon dessein  
et tout d'abord à votre honneur.*

(Haute Navarre)

10

Hemen gera etxekoandrea  
zure gauza zein ona  
egun hontan jantzikoytuzu  
zure soinian hamar gona;

(Urdiain, Satrústegui)

*Nous voici maitresse de la maison  
ce qui vous convient  
est de vêtir, ce jour  
dix robes superposées.*

(Haute Navarre)

11

Txuri nabar azpiko  
gorri ederra gaineko,  
zure parerik ez da  
plaza bat onratutzeko.

(Urdiain, Satrústegui)

*Blanche et brune en dessous  
une belle rouge par dessus,  
vous n'avez pas de pareil  
pour honorer une place.*

(Haute Navarre)

12

Hor goien goien iturri  
ura da txorrotik etorri,  
etxe hontako etxekoandreak  
Ama Birjina dirudi.

(Urdiain, Satrústegui)

*Très haut, là haut (une) fontaine  
l'eau y coule par  
la maitresse de cete maison  
ressemble à la Sainte Vierge.*

(Haute Navarre)



ESKE PERTSUEN BILDUMA

13

Sentitzen zaitut, sentitzen,  
ari zerala jaikitzen  
zure gerriko giltza soinua  
hemendixen dut aditzen.

(Urdiain, Satrústegui)

*Je le sens, je le sens  
que vous vous levez  
le bruit de la clef à votre ceinture  
je l'entend d'ici.*

(Haute Navarre)

14

Damatxo gazte konponitua  
hoiek kolore gorriak,  
zure matelak iduri dute  
klabelinaren orriak.

(Urdiain, Satrústegui)

*Jeune dame coquette  
quelle belles couleurs rouges,  
vos joues paraissent  
des pétales d'oeillet.*

(Haute Navarre)

5

Etxekoandre giltzaria  
irikizazu ataria  
ona nun dudan Ur Berria  
ur berriak osasuna  
urte berri egun ona  
jainkoak dizula egun ona.

(Lakuntza, Azkue)

*Maitresse porte-clefs  
ouvrez le portail  
(car) me voici avec l'eau neuve  
l'eau neuve, la santé  
bonne journée de Nouvel An  
que Dieu vous donne le bonjour.*

(Haute Navarre)

6

Hor goien goien izarra  
errekaldean lizarra  
etxe hontako nagusi jaunak  
urre gorrizko bizarra.

(Urdiain, Satrústegui)

*Là haut très haut l'étoile  
près du ruisseau le frêne  
le maître de cette maison  
(a) une barbe en or rouge.*

(Haute Navarre)

7

Etxe hontako nagosi jaunak  
poltxia txintxirinduna  
poltxia txintxirinduna  
zilar ezpatauna (Satrústegui)  
zizarrez ezpataduna (Azkue).

*Le maître de cette maison  
(a) la bourse garnie de pièces  
(a) la bourse garnie de pièces  
et l'épée en argent.*

(Haute Navarre)

D. PEILLEN

8

Hor goien goien belea  
errekaldean goldea  
etxe hontako nagusi jauna  
nekazaritxo noblea.

(Urdian Satrústegui)

*Là haut très haut le corbeau  
près du ruisseau l'araire  
le maître de cette maison  
(est) un noble paysan.*

(Haute Navarre)

9

Etxe hontako andre zabala  
ama onaren alaba,  
bidean aditu dugu  
limosnaria zerala.

(Urdian Satrústegui)

*Généreuse maîtresse de cette maison  
fille d'honorable mère,  
nous avons entendu en chemin  
que vous faisiez l'aumône.*

(Haute Navarre)

15

Klabelinaren orriarekin  
arrosa, maiatzekua,  
hementxe gaude zure begira  
damatxo bihotzekua.

(Urdian Satrústegui)

*Avec le pétale d'oeillet  
la rose de mai,  
nous sommes ici à vous regarder  
demoiselle de(notre) coeur.*

(Haute Navarre)

16

Santitzen zaitut, sentizten,  
sala berrian jeikitzen  
zure oin txiki politen hotsa  
hemendixen dut aditzen.

(Urdian Satrústegui)

*Je le sens, je sens  
que vous vous dans le salon  
le bruit de votre petit pied  
s'entend d'ici-même.*

(Haute Navarre)

17

Etxe honetan oilar bi  
batek bestea erori,  
etxe hontako zaldun gazteak  
hamalau urre txintzarri.

(Urdian Satrústegui)

*Dans cette maison deux coqs  
l'un abat l'autre,  
le jeune homme de cette maison  
possède 14 sonailles d'or.*

(Haute Navarre)

18

Hamalau urre txintzarriekin  
zazpi damaren eguzki  
hoiek danak hala izank  
gehiago du merezi.

(Urdian Satrústegui)

*Quatorze sonailles d'or  
soleil de plus d'une dame  
les choses étant ainsi  
il mérite d'avantage.*

(Haute Navarre)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

19

Eguzu, bada eguzu,  
baldin eman nahi baduzu,  
eman nahi baduzu eta  
bestela despedi baitzazu.

(Urdian Satrustegui)

*Donnez nous oui donnez nous  
si vous voulez donner  
si vous voulez donner  
autrement donnez nous congé.*

(Haute Navarre)

20

Eman duzu nobleki  
konpañak ere badaki:  
zure gaurko eman onekin  
eginen dugu tortxari  
tortxak bera du argi  
argiak argizari.

(Lekaroz, Azkue)

*Vous avez donné comme un noble  
la compagnie le sait aussi:  
nous ferons des cierges  
avec votre don d'aujourd'hui  
le cierge a besoin de lumière  
la lumière de cire.*

(Haute Navarre)

21

Ezkilak errepikatzen  
yendea zer den galdetzen;  
Lekarozko Erretor jauna  
aingeruak mintzaten.

(Lekaroz, Azkue)

*Les cloches sonent à toute volée  
le monde s'interroge ce que c'est  
Monsieur le Recteur de Lecaroz  
parle(avec) les anges.*

(Haute Navarre)

Bertsu ondarrak

*Restes de couplets*

22

Gure baratzean berar ona,  
ark botatzen du usai ona.

(Urdian, Azkue)

*Dans notre jardin la bonne herbe  
elle donne un bon parfum.*

(Haute Navarre)

.....  
Goian goian irargia,  
erdi erdian krabeliña.

(Urdian, Azkue)

*Là haut très haut la lune,  
au beau milieu l'oeillet.*

(Haute Navarre)

23

Arantzazu zer dakazu?  
ur goiena ur barrena  
ur goiena ur barrena,  
urte berri egun ona.

(Urdian, Azkue)

*Arantzazu qu'avez vous?  
l'eau au plus haut et au plus bas  
l'eau au plus haut et au plus bas  
bonne année, bonne journée.*

(Haute Navarre)

D. PEILLEN

24

Hor goien goien lainoa  
haren azpian otsoa,  
arkakusoak hilko al du  
etxe hontako atsoa.

(Urdian Satrústegui)

*Là haut très haut le brouillard  
sous lui le loup,  
les puces tueront bien  
le gâteau de cette maison.*

(Haute Navarre)

25

Arramian sagua  
haren atzetik katua;  
etxe hontako limosnarekin  
ez dugu beteko zakua.

(Urdian Satrústegui)

*Dans l'armoire la souris  
derrière elle le chat;  
avec l'aumône de cette maison  
nous ne remplirons pas le sac.*

(Haute Navarre)

26

Goien goien elorri  
ondoan jo ta erori  
etxe hontako etxeoandreak  
labe zatarra dirudi.

(Urdian Satrústegui)

*Là haut très haut l'aubépine  
frappée à la souche (est) tombée  
la maîtresse de cette maison  
ressemble à un vieux four.*

(Haute Navarre)

27

Etxe hontako etxeoandreak  
labea bete ipurdi  
labean ezin kabitu eta  
haustokira erori.

(Urdian Satrústegui)

*La maîtresse de cette maison  
remplit le four de son derrière  
et débordant du four  
tombe dans le cendrier.*

(Haute Navarre)

28

Urte barri barri  
txarri belarri,  
dekonak eztekonari  
eztekot eta niri.

(Gernika, Altube)

*Nouvel, nouvel an  
oreille de porc  
(que)celui qui a, à celui qui n'a pas  
je n'ai pas et à moi (Biscaye)*

29

Apalazio zalduna  
iru erregen eguna  
zotzak eta paluak  
txori bioren kontuak.

(Gernika, Altube)

*Seigneur Epiphanie  
le jour des trois rois  
bâtonnets et bâtons  
(est) l'affaire de ces deux oiseaux.*

(Biscaye)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

30

Emongo boizu emoizu  
baldin emongo badozu  
zuri begira gagozan arte  
egiten yaku berandu.

(Gernika, Altube)

*Donnez donc, donnez  
si vous devez donner  
tant que nous sommes à vous regarder  
il se fait tard pour nous.*

(Biscaye)

31

*San Nicolas coronero confesero*  
Mari Andres, alarguna dontzellea  
*cantaremos alegría,*  
bost etxetan sei ate  
zazpi etxetan su ete.

(Edo, Suete)

(aurrak)

*Saint Nicolas couronné confesseur*  
*Marie Andrée, veuve pucelle*  
*nous chanterons la joie,*  
*dans cinq maisons six portes*  
*dans sept maisons y'a t-il du feu.*

(ou de la chance?)

32

Aingeruak gara  
zerutik yatsi gara  
*una limosnita*  
*por amor de Dios.*

(Otxandio, Azkue)

(les enfants)

*Nous sommes les anges*  
*nous sommes descendus du ciel*  
*une petite aumône*  
*pour l'amour de Dieu.*

(Biscaye)

33

Urte zarrak yoan da  
barriak etorri;  
daukanak eztaukanari,  
nik eztaukat eta niri:  
niri emoten eztostena:  
beti dabilela larri.

(Gabika; Azkue)

*Les vieilles années, parties,*  
*les nouvelles, venus;*  
*celui a (qu'il donne) à celui qui n'a pas*  
*je n'ai pas et à moi:*  
*celui qui à moi ne donne pas*  
*qu'il soit toujours dans le gêne.*

(Biscaye)

34

Or goian goian errota  
garia dakar iota:  
etxe ontako etxeko andrea  
Ama Birjina debota.

(Arroazu, Azkue)

*Là haut très haut le moulin*  
*il porte le froment moulu*  
*la maîtresse de cette maison*  
*dévote de la Vierge Marie.*

(Haute Navarre)

D. PEILLEN

35

Or goian goian iru fago  
erdi erdiko lerdenago  
etxeontako nagusi jauna  
guziak baino ederrago.

(Arroazu, Azkue)

*Là haut très haut trois hêtres  
au beau milieu le plus svelte  
le maître de cette maison le  
le plus beau de tous.*

(Haute Navarre)

36

Or goian goian lainoa,  
laino azpian otsoa:  
arkakusoak itoko al du  
etxe ontako atsoa.

(Arroazu, Azkue)

*Là haut très haut le brouillard  
sous le brouillard le loup  
les puces probablement étoufferons  
la vieille de cette maison.*

(Haute Navarre)

37

Dios te Salve, ongi etorri  
gabon Jainkoak digula  
gabon Jainkoak digula eta  
urte onean sar gaitzala.

(Ziburu)

*Dios te Salve, bienvenu  
que Dieu nous donne bonne nuit  
que Dieu nous donne bonne nuit et  
qu'il nous introduise dans une bonne  
[année.]*

(Labourd)

38

Nagusi jauna nun zira  
hil ala bizi zira?  
Leheneko balin bazira  
gizon galanta zira.

(Ziburu)

*Monsieur le Maître où êtes vous?  
êtes vous mort ou vif?  
Si vous êtes celui d'autrefois  
vous êtes un brave homme.*

(Labourd)

39

Etxean eder herresa  
jauregian karrosa:  
etxe hontako nagusiak  
iduri du arrosa.

(Ziburu)

*Dans la maison(est) beau le méteil,  
dans le manoir le carosse:  
le maître decette maison  
ressemble à la rose.*

(Labourd)

40

Etzean eder kortzeiru  
dabilanean inguru:  
etxe hontako etxekandreak  
Parabisuan aingiru.

(Ziburu)

*Dans le maison (est) beau le dévidoir  
quand il va tournant:  
le maîtresse de cette maison  
ange au Paradis.*

(Labourd)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

41

Etxean eder ohako  
haurra sartzen deneko:  
etxe huntako etxekandreak  
sekulan eztu beharko.

(Ziburu)

*Dans la maison beau le berceau  
pour quand l'enfant y rentrera:  
la maîtresse de cette maison  
n'en aura jamais besoin'.*

(Labourd)

42

Arroltze bat gutixe  
biga ere holaxe,  
hirur eman bazaintza  
zure parerik ez laite.

(Ziburu)

*Un oeuf trop peu  
deux de même  
si vous en donniez trois  
il ny aurait pas votre pareille.*

(Labourd)

43

Goazin goazin hemendik  
hemen eztun xingarrik;  
etxe huntako gazitegian  
saguak humeak hazten tik.

(Ziburu)

*Allons, allons (nous en) d'ici  
ici il n'ya pas de lard;  
dans le saloir de cette maison  
la souris nourrit ses petits.*

(Labourd)

44

Urte barri barri  
daukanak extaukanari  
*emon gabonkari*  
Nik eztaukat  
eta zuk emon neuri.

(Elantxobe)

*Nouveau, nouvel an  
que celui qui a à celui qui n'a pas  
donne pour la bonne nuit  
Je n'ai pas  
et vous donnez m'en.*

(Biscaye)

45

Ezpanazue emoten  
beti kakalari  
Atsoak dauko *iletea sari*  
Agiureak dauko *ardaua pozgarri.*

(Elantxobe)

*si vous ne me donnez pas  
toujours en mal de selle  
La vieille est souvent en deuil  
le vieux a le vin réjouissant.*

(Biscaye)

46

Urte berri berri  
tzarri belarri  
otarra bete gaztaiña  
gainean lukainka bi.

(Elgoibar)

*Nouveau, nouvel an  
oreille de porc  
panier plein (de) châtaignes  
deux saucisses sur le dessus.*

(Guipuzcoa, dialecte Biscaye)

D. PEILLEN

47

*San Mikolas corònado (sic)  
es muy ondrado  
es muy ondrado  
Aquí estamos cuatro  
cantaremos dos  
una limosnita  
por amor de Dios.*

*Saint Nicolas couronné  
est très honorable  
Nous sommes ici quatre  
deux nous chanterons  
une petite aumône  
pour amour de Dieu.*

(Elgoibar)

48

*Ale- alegría  
todo el mundo alabaría  
Aquí estamos cuatro, etc.*

*Gai, gaité  
louerait tout le monde  
Ici nous sommes quatre etc....*

(Guipuzcoa, dialecte Biscaye)

49

*Aingeruak gera  
zerutik gatoz,  
poltsea badegu  
baïña eskean gatoz.*

*Nous sommes les anges  
nous venons du ciel  
nous avons la bourse  
mais venons en quête.*

(Elgoibar)

(Guipuzcoa, dialecte Biscaye)

**ZUBEROAKO ALBADAK**

Eske kantu hutsak dira, ez dute, ez pagan-ohiturarik (ur berria) ez giristorik (Santa Ageda) aitzaki bezala emaiten, koplak batean bakarrik Khanderaillu, aipatzen da. Eskeleak, Herrelle-n arauera eta hurrunago irakurriko duzuten bezala, herriko haurrak, Larrainekoak omen ziren; nere Larraineko askazien iritziz: herriko gazteria. Eskaleek beren eskea:

usia gatik, legea gatik  
erreprotxien beldurrez,

egiten dute.

Nafarroa behean, Santibatez (Santagategi) egiten dutenean era berdinean diote.

ez gabilta ederrez  
ez eta ere beharrez  
kostuma zaharren uztez  
erreprotxa beldurrez.



## ESKE PERTSUEN BILDUMA

Duela hogei bat urtetaraino ohitura zaharrak iraun du Larrainen. Orain, Basaburuko mendiak husten baldin badira, Pettarreko zuberotarrek ez dute kostuma zahar hori piztu, nahiz lehenago *Obetaka* izenarekin, joan den mendean ezagutu duten. Dakidanez azkenik Ugarre auzoko gazteek eta Andozeko batzuek duela hogei urte egin dute. Ohitura horrek Zuberoan Otsailan geratzak badu zentzu berezi bat zeren euskaldun gehienek *Otsaila* deritzaion hilabeteari Zuberotarrek erraiten dugu *Barantaila* (hain zuzen latinek Otsailako pesteri *parantalia* izena eman zioeten). Gainera Zuberoan Albadaka delakoaren ondotik afari baten egiten den gisa, Erromatarrek hilen ohoretako elizkizunen ondotik afari handiak egin ohi zituzten. Nahiz Zuberoan ez den Santa Aagatarik aipatzen egun haietan egiten zituzten eskeak. (Otsailaren I ean) Deun Ageda (Otsailaren 5ean) delarik. Azken urteetan Larraineko gazteak albadaken ibili dira, jateko biltzen, baina kantatu gabe.

### ALBADAK

Etxe guzien aintzinean Kanderailu bezperan, gauaz, Larraineko haurrak kantuz dabiltzanean, bere ahaire bereziarekin emaiten dituzten «kobla» edo «bersetak» dira. Kostuma hori Larraineko herrian bakarrik begiratu da. Kantariak lehenik etxeko jaunari, gero etxekandere, etxekalaberi, gero neskatoeri eta abar... laudorioz, goraipuz. Gero baldin hartu emaitza ez bada aski, gais-tokeria kantatzen.

Ohar; Txingarra, lukainka, odolki eskatzeko kantatzen dute eta (Azke-nean) eske-kantua da. J. Vinson-ek bere Folklore du Pays Basque delakoan zati bat eman du gisa hortakoa. Euskal Erri guzian, Ihautiri guzian haurrak eskean omen zebiltzan; baina iduri zait Larrainen baizik ez dela ohidura hori begiratu (Herrelle Baionako Lizeian irakasle zenarentzat Ligiko Léopold Irigaray-ek bilduak).

### AUBADES

Ce sont des couplets sur un air spécial, que les enfants du village de Larrau vont chanter le soir, la veille de la Chandeleur devant chaque maison. Cet usage ne s'est conservé qu'à Larrau. Les Chanteurs s'adressent d'abord au maître de maison, puis à la maitresse, puis à leurs filles, puis à la servante etc... en termes flatteurs. Puis si le cadeau reçu n'est pas suffisant ils chantent des méchancetés.

N. B. Ils chantent pour demander, des boudins, des saucisses, du lard etc... Bref c'est une chanson de quête. J. Vinson dans son «Folklore du Pays Basque» a publié un fragment d'une autre chanson analogue. Il Paraît qu'autrefois les enfants allaient quêter de cette façon, pendant le Carnaval, dans tout Le Pays Basque; mais il me semble qu'aujourd'hui cet usage ne se pratique plus qu'à Larrau (Les présentes pièces recueillies et traduites par Leopold Irigaray de Licq pour G. Herelle, professeur au Lycée de Bayonne).

D. PEILLEN

Pertsu horiek IGELA errebistak eman zituen, M. Guilcher jaunak bildu musikarekin eta Larraineko Pierre Duleau-Bentaberri-k eman bertze hamasei bersetekin.

(Martxo-Maiatz 1963)

Ces vers ont été publiés par la revue IGELA, avec une transcription musicale de M. Guilcher et d'autres couplets (16) venant de M. Pierre Duleau-Bentaberri de Larrau.

(Mars Mai 1963)

1

Parise eta Baiuna  
Orai girade gü hunaa  
etxeko jauna kunpañareki  
jinkuak deizüla gaï huna.

*Paris et Bayonne  
maintenant nous arrivons:  
maitre de la maison avec la compagnie  
que Dieu vous donne le bonsoir.*

2

Etxeko jauna zük entzün,  
bardin plazer badüzü:  
etxekoen koblatzeko  
deligentzia emagüzü.

*Maître de la maison écoutez nous,  
si celá vous convient,  
pour chançonner la maisonnée  
donnez nous diligence.*

3

Eman badü badügü;  
eman ezpadü eztügü.  
Eman badü et'ezpadü  
eginen ja batügü.

*S'il l'a donnée nous l'avons,  
s'il ne l'a pas donnée nous ne l'avons pas.  
Qu'il l'ait ou qu'il ne l'ait pas donnée  
nous ferons quand même (les couplets).*

4

Hürra hun da jateko,  
erbindolia hütako:  
etxe hontako Etxeko Jauna  
zaldiz elizalako.

*La noisette est bonne à manger  
l'hermine pour (tailler) un bahut:  
le maître de cette maison (est bon)  
pour aller à l'église à cheval.*

5

Zaldiz elizalako  
han ürrhez oberendatüko;  
hantik etxera jin deneko  
zilar kaideran jarriko.

*(Ira) à cheval à l'église  
Y fera offrande en or;  
quand sera de retour chez lui  
(ira) s'asseoir sur la chaise d'argent.*

## ESKE PERTSUEN BILDUMA

6

Etxeko jauna bidean  
Urrhe kana bat eskian:  
Errege ere mintzeraz liro  
bere boneta бүrian.

*Le maître de maison chemine  
une canne d'or à la main:  
même le Roi il pourrait le faire parler  
(en gardant) le béret sur la tête.*

## ETXEKANDERIARI

Etxean eder gerrena  
etxekandere lerdena:  
zure erhiko errhaztünaz  
eros leiteke Baiuna.

*La broche est belle dans la maison  
svelte la maîtresse de céant:  
avec la bague de votre doigt  
l'on pourrait acheter Bayonne.*

8

Ardi beltzak axuri:  
etxekandere lar'xuri  
ziü plazala elkiten zira  
Printsesa bat üdüri.

*La brebis noire à l'agneau:  
la maîtresse de maison à la peau blanche,  
vous sortez sur la place  
pareille à une princesse.*

## XAHARRER (I)

9

Galbarixko, galbarixko  
Urruñen zen San Frantsisko:  
etxe hortako zahartto hori,  
Jesü-Kristi belhainko.

*Petit chauve, petit chauve,  
Saint François était dans Pampelune:  
le petit vieux de cette maison  
a genoux devant Jésus Christ.*

10

Hur ondoetan lexarra  
zelü goretan izarra:  
etxe hortako X horrek  
ürrhez dizü bizarra.

*Le frêne pousse au bord de l'eau  
l'étoile (est) haute dans le ciel:  
X de cette maison  
a la barbe en or.*

HAUR TXIPIER (I)

11

Pinpirineta, pinpirineta  
etxe hontako primistetan:  
zazpi zezen tolera niro,  
(Prima edo primia) zure ezteietan.

*Coquet, coquette (comme un papillon)  
l'ainé de cette maison:  
j'admettrais sept taureaux  
à vos noces (héritier ou héritière).*

12

Bojak eder kürkürü  
erdi erditan lüzkülü:  
etxe hontako txipitto hori  
paradüsüko aingürü.

*La cuve (a) de beaux cerceaux  
bien au milieu(la) bonde:  
le petit de cette maison  
ange au paradis.*

13

Meza (y) ari da emaiten,  
zeñia arrapikatzen:  
etxe hortako txipitto hori  
aingürieki(n) mintzatzen.

*On est en train de donner la messe,  
la cloche sonne à toute volée:  
le tout petit de cette maison  
parle avec les anges.*

14

Saratsak eijer lilia,  
erleak hara lehia:  
etxe hortako txipitto hori  
amaren üda lilia.

*Le Saule a une jolie fleur,  
l'abeille y est attirée:  
le tout petit de cette maison  
(est) la fleur d'Été de sa mère.*

*Gazter(i)*

15

Ophil xuria labeko,  
erre denian jateko:  
etxe hortako X hori  
gaur bi besoen arteko.

*Le petit pain dans le four,  
pour le manger quand il sera cuit:  
X de cette maison  
peut-être(sera) ce soir entre deux bras.*

16

Baratzean üthürri  
zilhar hura üdüri:  
etxe hortako X hori  
hartan sarthia üdüri.

*La fontaine dans le jardin  
ressemble à de l'eau d'argent:  
X de cette maison  
semble y avoir été plonge.*

ESKE PERTSUAEN BILDUMA

17

Khotxü eijer phünttatü  
khallatu errez khalkatü:  
etxe hortako X hori  
eijer eta karratü.

*Le pot à traire(est) joliment pointillé  
plein jusqu'au ras de caillé cuit:  
X de cette maison  
est jolie et avenante.*

18

Galtza beltzak jauntsirik,  
zeta berdez beztitürük:  
etxe hortako neskatila horrek  
mündian eztü parerik.

*Ayant mis ses bas noirs  
et vêtue de soie verte:  
la jeune fille de cette maison  
n'a pas de pareille au monde.*

25

*Gure etxen lau ardi  
Lauak zortzi beharri  
Egundano e'niz izan  
Orai bezain egarri.*

*Chez nous quatre brebis (il y'a)  
Les quatre(ont) huit oreilles  
Jamais je n'ai été  
Aussi assoiffé que maintenant.*

26

*Etxian eijer bahia  
Arrotz horren nublia  
Horren mediox behar günüke  
Phitxerraren saria.*

*Dans la maison joli tamis  
La noblesse de cet hôte!  
Par lui nous devrions avoir  
Le prix d'un pichet de deux litres.*

27

Emaitekotz emazü  
Heben haidürü gütützü  
Müthil gaztiak gira  
Eta dothe bilha gütützü.

*Tant qu'à donner donnez vite;  
Nous attendons ici;  
Nous sommes des jeunes gens  
Et nous cherchons notre dot.*

28

Oillo beltza habian  
Bere arraultzen gafian  
Etxe hunetan üsatzen dügü  
Hirur dozena aldian.

*La poule noire dans le nid  
Sur ses oeufs  
Notre habitude dans les bonnes maisons  
C'est trois douzaines à la fois.*

29

Eztügü nahi altharia  
Ez eta erè erdia  
Üsia gatik, legia gatik  
Liberatako txinkorra.

*Nous ne voulons pas tout le lard  
Ni même la moitié  
Mais selon la coutume et la loi,  
Une tranche d'une livre.*

D. PEILLEN

30

Lükhaink ixter bat gütixe  
Erdia ere halaxe  
Osua ükheiten badügü  
Zien parerik eztate.

*Un morceau de saucisson trop peu  
La moitié pareillement  
Si nous recevons l'entier  
Vous n'aurez pas vos pareils.*

19

Gardebera, gardebera,  
bagoatza hor behera:  
etxe hortako (neskatila edo mothiko) hori  
gazte eta alagera.

*Le chardon doux, le chardon doux,  
nous allons vers le bas (du pays)  
de cette maison (la jeune fille, le jeune  
[homme])  
(est) jeune et gai.*

20

«Chaine» —a eijer lephoan,  
txapel xuria bürrian:  
etxe hortako, neskatala hori  
aurthen ber' ezkont'urthean.

*La chaîne jolie autour du cou  
et le chapeau blanc sur la tête:  
de cette maison la jeune fille  
(est) dans son année de mariage.*

21

Behi xuria sankhari,  
alanoa tzanpari:  
etxe hortako X hori  
plazan eder dantzari.

*La vache blanche meuglante,  
le bouledogue aboyeur:  
X decette maison  
(est) beau dansant sur la place.*

22

Ezpata eder gerrian,  
bonet gorria burian:  
etxe hortako mothil hori  
aurthen ber'ezkont'urthean.

*Ceint d'une belle épée,  
coiffé d'un béret rouge  
le garçon de cette maison  
(est) dans son année de mariage.*

ESKEA, GALTHOA

23

Ezkira huna beharrez  
ez eta ere aiherrez:  
üsia gatik, legea gatik,  
erreprotxuen beldurrez.

*Nous ne venons pas par besoin  
ni par inclination (à mendier)  
(mais) en vertu de la coutume et de la loi,  
pour ne pas mériter de reproches.*

ESKE PERTSUEN BILDUMA

24

Etxekandere zabala  
lekhü huneko alhaba:  
bide huntan jakin dizügü  
amoina egile zinela.

*(Et vous) maitresse de maison généreuse  
fille de bonne maison:  
nous avons appris en chemin  
que vous êtes faiseuse d'aumônes.*

31

Dezagün erremestia  
Etxekandere nublía  
Zeren borthalat jin betzaikü  
Amoina ederrekilan.

*Remercions  
La noble maitresse de maison  
Car elle est venue à la porte  
Avec une belle aumône.*

32

Eman düzie uneski  
Kunpañiak oro badaki  
Pharadüsián sar zitaie  
Hamabi aingürieki.

*Vous avez donné convenablement  
La compagnie le sait bien;  
Entrez au paradis  
Avec douze anges.*

33

Tinta zaikü faltatü  
Papera ere abantxü  
Nabaskeriarik egin badügü  
Jente hunak pharkamentü

*L'encre nous a manqué  
Le papier est aussi épuisé  
Si nous avons commis des incorrections  
Braves gens pardonnez nous.*

34

Baratzian belhar hun  
Gaurko gaia guretzat hun;  
Eta orai bagoatzie,  
Jinko hunak deiziela gai hun.

*Dans le jardin de la bonne herbe  
Cette nuit nous a été bonne;  
Et maintenant nous nous en allons  
Que Dieu vous donne bonne nuit!*

**GAIXKI ERREZEBITURIK**

Etxian eder ilhinti  
Hamar edo hamabi  
Etxe hortako etxekandeiari  
Handiena üzküti.

*Le tison (est) beau dans la maison  
Dix ou douze,  
Et que le plus grand entre  
Par le cul de la maitresse de maison.*

D. PEILLEN

36

Oyhanian (sic) elhorri  
Phika eta erori  
Etxe hortako etxeko jauna  
Urdan khakala erori.

*L'épine dans la forêt  
Quand on la coupe elle tombe  
Le seigneur (sic) de cette maison  
Est tombé sur la merde de cochon.*

37

Kbanderaillü, kbanderaillü  
Zure hitzak oro gargaillü;  
Etxe hortako xahartto hori  
Mundu ooren egargaillü.

*Chandeleur! Chandeleur!  
Vos propos sont tout bredouillage;  
Le petit vieux de cette maison,  
De tous est le souffre-douleur.*

38

Oihanian üthürri  
Inkhatz hura üdüri;  
Etxe hortako arrotz hori  
Hartan sarthia üdüri.

*Dans la forêt (une) fontaine  
Ressemble à de l'eau de charbon (sic)  
L'hôte de cette maison  
Semble y (avoir été) plongé.*

**IHAUTIRIKOAK**

Nafarroa Garaian dira ohitura hauek hedatuenik. Ihautiriko ostegunetan neska-mutilak eskean ibiltzen dira eta Ihautiri gabeko egunetan haurrak. Nafarroan eta Gipuzkoan tokika Ihautiri aurreko, aitzineko lehen ostegunari Lardero izena emaiten diote. Mende hastapenean euskara itzali den herrietan ere españolez kantatzen dute

Jueves Lardero  
chulas y huevos  
Jueves Lardero  
chulas para el vaquero.

(Ayetxu, urraul goiena ibarrean)

Eta Nafarroako Gatzagan

Urdai Lardero  
Urdai Lardero  
urdaia yan da  
garbaia gero.



## ESKE PERTSUEN BILDUMA

Holako eskeak Ihautiri ostegunean *Lerdo* deritzaion egunean egiten dira Nafarroan eta Gipuzkoan, Lapurdin ere. Bizkaian berriz ostegun hari *Eguen zuri* izena eman diote. Holako ohitura aleman hizkuntzako Lotringenen (Lorrenan) ikusi nuen haurrak esku -kalaka batzu jotzez, -ezkilen lekuen -eta kantatuz diru biltzen zebiltzan. Europako baserri gehienetan, gure egunetara ino heldu dira, holako ohiturak.

### EGUN TTUNTUN

Baztango Arizkun herrian, Bozateko auzoan haurrek Iñaute gabeko hirur ostegunetan; mutilek *gizakunde-z*, Iñauterietako lehen ostegunean; neskek *emakunde-z* eta *orakunde-z* bigarren ostegunean kantatzen zituzten.

(R. M. Azkue in C. V.)

Ohar bat: ttunttuna ez da bakarrik soinua tresna, baina mozkoraldi arin bat.

1

Egun ttunttun, biar ttunttun,  
etzi ere ttunttuna;  
etxe ontan arnoa bada,  
guk ez jakin zehana,  
zehana den yakiteko  
bear du ttantatto bana.

2

Aingiruak gara,  
zerutik eldu gara,  
bolsa badugu bainan  
dirurikan ez.  
Konbida gaitzazu  
txikiño batez,  
guk ereinen zaitugu  
bertzeño batez. Urtats; urtats!

(Bozate, Baztan. Azkue)

Dans le village d'Arizkun (vallée de Baztan) où se trouve la quartier Bozate des Cagots, les enfants les trois jeudi d'avant Carnaval; les jeunes gens pour la «Masculinité» le premier jeudi de Carnaval les jeunes filles pour la «Féminité» et la «Totalité» le second jeudi chantent ces couplets.

(Cancionero Vasco de Azkue)

Observation: le ttunttun (tiountioun) n'est pas seulement le sens de tambourin mais aussi de «pompette».

*Aujourd'hui tambourin, demain  
après demain aussi tambourin,  
dans cette maison il y'a du vin  
nous ne savons à combien, (acheté)  
pour le savoir  
il nous en faut une gorgée à chacun.*

*Nous sommes les anges,  
nous arrivons du ciel,  
nous avons la bourse mais  
pas d'argent.  
Conviez nous  
pour un petit verre,  
nous vous en répandrons  
un autre (couplet?) Jour de l'an, jour de  
[l'An.*

(Haute Navarre)

D. PEILLEN

EGUEN, LARDERO, LERDO

(Jeudi gras)

*Jeudi gras*

1

Eguen zuri eguen baltz  
txakurra arrautza ganean datz  
baltz baltxoak maisuentzat  
zuri zuritxoak geuretzat

(Arbazegi, Azkue)

*Jeudi blanc, jeudi noir  
le chien git sur les oeufs  
les noirs petits noirs pour le maître  
les blancs petits blancs pour nous*

(Biscaye)

edo  
zuri zuritxuok geuretzako dira  
enparaduak maisuentzat.

(Garai, Azkue)

*ou bien  
les blanc petis blancs sont pour nous  
les autres pour le maître.*

(Biscaye)

2

Eguen zuri, eguen baltz  
Oizko edurra baizen zuri  
kortako edeak baizen zal  
Zal da zal, zal da zal.

(Arbazegi, Azkue)

*Jeudi blanc, jeudi noir  
Aussi blancs que la neige du Mont Oiz  
aussi durs que les courroies de l'étable  
durs et durs, durs et durs.*

(Biscaye)

3

On dau saltseak espezia  
Bartzelonatik ekarria:  
nagosi jauna gura genduke  
kopla onetako lizentzia.

(Garai, Azkue)

*Est bonne pour la sauce l'épice  
apportée de Barcelone:  
monsieur le maître nous désirerions  
la permission pour faire ces couplets  
(la licence).*

(Biscaye)

4

Ateok dira leizarrez  
Ate buruok zidarrez:  
etxe onetako etxeko jauna  
urre gorrizko bizarrez,  
.....  
urre gorrizko bizarra dauko  
urre zurizko bizkarra...

(Garai, Azkue)

*Les portes sont en frêne  
les linteaux en argent:  
le maître de cette maison  
à la barbe d'or rouge.  
.....  
il a une barbe d'or rouge  
un dos d'or blanc.*

(Biscaye)

## ESKE PERTSUEN BILDUMA

5

Azkue-k bildua, Eguen zuriko egunean  
humeek Durangoaldean kantatua.

*Recueilli par Azkue dans la région de  
Durango, chanté par les écoliers.*

Eguen Zuriko eguna  
Jaunak bereak egina  
eskola mutilak ibilteko,  
limosna on baten bila.

*Le jour de jeudi gras  
fait par Dieu lui-même  
pour que les écoliers aillent  
chercher une bonne aumône.*

6

Hor goian goian goldia  
haren gainian belia;  
etxe ontako nagusi jauna,  
nekazari langilia.

*Tout là haut là haut la charrue  
sur elle le corbeau (posé)  
le maître de cette maison  
(est) un paysan travailleur.*

7

Poltsan baditut errial bi  
bata bestiarekin dira bi;  
etxe hontako etxekandriak  
ama birjina dirudi.

*Dans la bourse j'ai deux réaux  
l'un avec l'autre ils font deux;  
la maîtresse de cette maison  
ressemble à la Sainte Vierge.*

8

San Kasiano obispua,  
eskola maisu jakituna  
Jesukristoren fediatatik  
odola eman ebana.

*L'évêque Saint Cassien  
savant maître d'école (qui)  
à cause de la foi du Christ  
avait donné son sang.*

9

Santua bitarte dala  
ez egizu izan okerrik;  
orain bagoaz danok aurrera,  
agur danori eginik.

*Le Saint étant intercesseur  
n'ayez aucun ennui;  
maintenant nous allons plus avant  
(vous) ayant tous salvés.*

10

Emongo boizu emoizu;  
Bestela ezetz esaizu:  
Ate ondoan aizeak hartzen  
amak ez gaitu bialdu.

*Si vous voulez donner, donnez  
sinon dites nous que non:  
Près de la porte à prendre les vents  
(notre) mère ne nous a pas envoyés.*

## D. PEILLEN

11

Eguen zuriko astea  
Jaungoikoak emona guztia,  
eskola mutillak ibilteko  
limosna baten billa.

(Berriz, Azkue)

*La semaine du jeudi gras  
donnez par Dieu entièrement,  
pour que les écoliers aillent  
chercher une aumône.*

(Biscaye)

12

Urdai lardero, urdai lardero  
urdaia yan da garbaia gero,  
piperrarekin espezia,  
Bartzelonatik etorria:  
etxeko jaunak emoten badosku  
koplatutekō lizentzia.

(Gatzaga, Azkue)

*Jeudi gras, jeudi gras  
le lard (une fois) mangé, le repentir suit,  
avec le piment les épices  
venues de Barcelone:  
si le maître de maison nous donne  
la liberté de chançonner.*

(Biscaye)

13

Yauna doa zaldian,  
urresillea azpian,  
bedorren pozaz egon gerade

yoan dan urte guzian;

.....

atea dago lizarrez  
ateburua zidarrez...

(Gatzaga, Azkue)

*Le Monsieur va sur le cheval,  
une selle en or sous (lui)  
sur la joie (qu'il nous a donnés) neus-  
[sommés restés*

*tout l'an passé;*

.....

*la porte est en frêne  
(et) le linteau en argent.*

(Biscaye)

14

Etxeko andre noblea,  
giltz andien yabea;  
giltz andiak artu ez eze  
egizu egin peria.

(Gatzaga, Azkue)

*La noble maitresse de maison,  
possédant les grandes clefs;  
en plus de prendre les grandes clefs  
faites nous faire la bombance.*

(Haute Navarre)

## SAN KASIANO

15

Teodora Iburguen Nabarniz-koak  
Bizkaian beste eskolako neska batzuekin  
hori kantatzen zuen, etxez etxe zoatzila  
eskean.

(R. M. Azkue)

*Teodora Iburguen de Navarniz en  
Biscaye chantait celà alors qu'elle  
allait de maison en maison, avec  
d'autres filles pour quêter.*

16

San Kasiano Obispo jauna  
eskola maisuen entzuna;  
zeure koprade garean legez  
egizu laguntasuna.  
Orain artean usudan legez  
gatoz gu zeure etxera;  
etxekandrea bota egizu  
limosna on bat zakura.

*Saint Cassien Seigneur évêque  
maître d'école réputé  
comme nous sommes de votre confrérie  
accordez nous (votre) aide.  
Suivant la coutume jusqu'à ce jour.  
nous venons à votre maison;  
maîtresse de maison donnez nous  
une bonne aumône dans la bourse.*

17

Emon egizu maisu jaunari  
irakasteko grazia,  
baita guri bere ikasteko  
gomuta on ta argia.  
Orain artean usudan legez  
gatoz gu zeure etxera,  
etxekandrea bota egizu  
limosna on bat zakura.

*Donnez à Monsieur le maître (d'école)  
la grace d'enseigner,  
et à nous aussi celle d'apprendre  
la mémoire bonne et claire.  
Comme jusqu'ici suivant la coutume  
nous venons à votre maison  
maîtresse de maison donnez nous  
une bonne aumône dans le sac.*

**SANTIBAT ETA IHAUTE**

(Kantuz, Xaramela: P. Lafitte; Cancionero Vasco: Azkue)

1

Santibatek, andere  
aurten bezala gero're.  
Santibatek igortzen gaitu  
txingarketa gu ere.

(C. V. Azkue, Kantuz)  
(Behorlegi) (Lapurdi, Saraitzu)

*Santibat, Madame  
cette année, de même après.  
Santibat nous envoi  
nous aussi en quête de lard.*

(Labourd)  
(Haute et basse Navarre)

Egun hartako eskaleak etxe aintzinerara beren gerrenekin heldu direlarik.

Les quêteurs de ce jour-là étant arrivés devant la maison avec leurs broches.

2

Ez gabiltza ederrez  
ez eta ere beharrez  
kostuma zaharren uztez  
errepotxa beldurrez.

(Kantuz)

*Nous ne déambulons pas pour la beauté  
ni même par besoin;  
(mais) d'abandonner la vieille coutume  
craignant le reproche.*

(Labourd)

D. PEILLEN

3

Ez dugu nahi urdea  
ez eta ere erdia;  
usaia gatik, kostuma gatik  
liberako zatia  
liberako zatia edo  
gerrenaren betea.

(C. V., Behorlegi)

*Nous ne voulons pas le cochon  
ni même la moitié;  
suivant l'usage (et) la coutume  
le morceau de la livre  
le morceau de la libre ou  
le plein de la broche*

(Basse Navarre)

.....

Kostumako legeगतिक, libraerdiko zatia  
libraerdiko zatia

*suivant la loi coutumière, le morceau de  
[demi livre*

libraerdiko zatia eta  
gerrenaren betea.

C. V. Azkue, Ezkaroze)

*le morceau de demi-livre et  
le plein de la broche.*

(Haute Navarre)

.....

4

Tolos'eta Baiona  
Jainkoak dautzul'egun ona  
gure txingarren emaitera,  
jeiki bazinte huna.

(Kantuz)

*Toulouse et Bayonne  
Que dieu vosu donne le bonjour  
à nous donner notre lard  
si vous vous leviez par ici.*

(Labourd)

5

Ez dugu nahi tripotik  
bertzian izan ez denik,  
beldurrez eta tronpa gaitzaten  
urdekeriaz betherik.

(Kantuz)

*Nous ne voulons pas de boudin  
qui n'est pas passé par le chaudron,  
de crainte que l'on nous trompe  
les ayant remplis de saletés.*

(Basse Navarre)

Etxekandrerriari lausenguak  
les louanges à la maîtresse de maison.

*Les louanges à la maîtresse de maison.*

6

Etxean eder gerrena  
etxekandere lerdena  
zure erhiko erhaztun hortaz  
eros niro Baiona.

(Kantuz) (C. V.)

*Belle (est) dans la maison la broche  
svelte la maîtresse de maison  
avec cet anneau de votre doigt  
j'achèterais Bayonne.*

ESKE PERTSUEN BILDUMA

7

Etxean eder kortzeiru  
dabiltzanina inguru;  
etxe huntako etxekanderia  
zaldiz elizalako  
zaldiz elizalako eta  
zilhar kadiran jarriko.

(Kantuz)

*Dans la maison (est) beau le dévidoir  
quand il va tournant;  
la maîtresse de cette maison  
à cheval pour se rendre à l'église  
à cheval pour l'église et  
pour s'asseoir sur une chaise d'argent.*

8

Landan eder ilharra  
haren pean belharra:  
etxe huntako etxekanderiak  
zer emazte xilharra!

(Kantuz)

*Dans la lande belle la bruyère  
sous elle l'herbe:  
la maîtresse de cette maison  
quelle femme soigneuse!*

9

Etxean eder ferreta  
haren gainean kaneta  
etxe huntako etxekanderia  
zer emazte plaxenta.

(Kantuz)

*Dans la maison (est) belle la ferreta  
sur elle la canette  
la maîtresse de cette maison  
quelle femme agréable!*

Nausiari erdi lausengu, erdi mehatxu  
Au maître de maison moitié louange, moi-  
[tié menace.

*Au maître de maison moitié louange, moi-  
[tié menace.*

10

Etxean eder aitzurra  
Nausi bilo izurra:  
kolputto bat eman ezaguzu  
busti dezagun zintzurra.

(Kantuz)

*Dans la maison (est) belle la houe  
maître (aux) cheveux frisés  
donnez nous un petit coup  
pour que nous mouillons le gosier.*

11

Kadiran zaude jarririk  
koloriak (koloreñoak C. V.) gorririk:  
guri txingarren emaitera  
jeiki bazinte hortik!

(Kantuz, C. V.)

*Vous êtes assis sur la chaise  
les couleurs bien rouges:  
pour nous donner notre lard  
si vous vous levez de là.*

D. PEILLEN

12

Xoria dago pinpirinetan  
etxe huntako leihoetan;  
zazpi zezen hilen tuzte  
primu horren ezteietan

(C. V. Azkue, Behorlegi)

*L'oiseau coquet est  
aux fenêtres de cette maison  
sept taureaux seront tués  
aux noces de cet héritier*

zazpigarrena toleaturen konpañiaren oho-  
[retan.

*le huitième nous admettrons en l'honneur  
[de notre compagnie.*

*Eskerren bihurtzea*

LES REMERCIEMENTS

13

Eman duzu nobleki  
konpaniak ere badaki;  
Parabisuan sar zaitezela  
hamabi aingeruekin,  
hamabi aingeruekin eta  
zure familiarekin.

(Kantuz, C. V.)

*Vous avez donné noblement  
la compagnie le sait aussi;  
entrez donc en Paradis  
avec douze anges  
avec douze anges et  
votre famille.*

14

Deus ukaiten ez dutelarik  
Goazen goazen hemendik  
Hemen ez duk (eztiagu C. V.) txingarrik  
etxe huntako gazitei txarrian (gazitegian  
[C. V.)

sagiak humiak hazten tik.

(Kantuz, C. V.)

*Quand ils ne reçoivent rien  
Allons allons (nous en) d'ici  
ici il n' y a pas de lard  
dans le minable saloir (dans le saloir)  
[decette maison*

*la souris nourrit ses petits.*

15

Etxean eder aihotza  
etxekandere hortz motza,  
su burdinaz hauts ditzatzula  
sudur eta kokotsa.

(Kantuz)

*Dans la maison, belle la serpe  
maitresse aux dents en chicots  
que vous vous brisiez avec la pelle à feu  
nez et menton.*



## ESKE PERTSUEN BILDUMA

16

.....  
Heldu nuzu urrundarik  
gaua bidean emanik,  
gaua bidean emanik eta  
ihaute dela entzunik.

(Ziburu, Azkue)

*Je suis venu de loin  
ayant passé la nuit en chemin  
ayant passé la nuit en chemin  
et ayant oui que c'est Carnaval.*

(Labourd)

17

Etxeko andere galanta  
begia duzu xarmanta,  
zure eskutik desiratzen dugu  
xingarra eta lukainka.

(Ziburu, Azkue)

*Gentille maîtresse de maison  
(votre) oeil est enchanteur;  
de votre main nous désirons  
du lard et des saucisses.*

(Labourd)

18

Etxekoandere nun zira?  
hil ala bizia zira?  
Lehengo hura balin bazira  
emazte galanta zira.

(Ziburu)

*Maîtresse de maison où êtes-vous?  
êtes vous morte ou vive;  
si vous êtes celui (celle) d'autrefois  
vous êtes une brave femme.*

(Labourd)

## IV. AZARI DANTZA - OILLAKUNDE

### Danse du renard

Oillakunde, geienez  
Astelen iaute egunez.  
Izenak berak dion bezala  
oillo eguna da biltzez.  
«Azari dantza» esan zioten  
giputzek beren izenez.

Jai onen etorburua  
labur esatera noa:  
pizti oek maiz galdu baitute  
axuri eta oilloa;  
eizatzean eske dabizte  
irauliz erri osoa.

*Commentaires du folkloriste en vers  
L'espèce poule (le jour des poules) le plus  
[souvent.  
le jour de lundi gras Comme le dit le nom  
c'est le jour de la collecte des poules.  
«Danse du renard» l'on nommé  
les guipuzcoans dans leur parler.*

*L'origine de cette fête  
je vais (le) dire brièvement:  
parceque ces bêtes sauvages ont détruit  
agneau et poules; (les hommes)  
ayant chassé, vont quêtant  
faisant le tour du pays entier.*

D. PEILLEN

Bizia bada, bizitan  
illa bada, larrutan:  
agotzez bete, estekiz josi  
mutillek alde banatan,  
erdian batek daramalarik  
makillaren muturrean.

*S'il est pris, vivant  
s'il est mort, en peau: (le renard) (est)  
pempli de balle, cousu de liens  
(tenu par) des garçons de chaque côté,  
tandis qu'un le porte par le milieu  
au bout d'un bâton.*

Arraultzak bil oi lenago  
gaur oillo eta oillasko.  
Axuri oillo, galdu digunik  
bada tegietan asko.  
Etxandereak eiztariari  
besteren bat eskainiko.  
Etxerik etxe kantatzen  
Soiñua bera dantzatzen,  
ate danetan ari ditutzu  
al ditutenak asmatzen.  
egun ontan deus eman bage  
etxe bat ez da gelditzen.

*Les oeufs ramassés bien avant  
ce soir poules(s) et poulet(s)  
bien qu'ayant perdu agneaux, poules  
il y'en a assez dans leurs abris.  
La maîtresse de maison aux chasseurs  
en offrira un autre.  
De maison en maison chantant  
dansant sur le même air,  
ils vont aller à toutes les portes  
inventant ce qu'ils peuvent.  
ce jour là sans rien donner  
il ne reste pas une maison.*

1

Azari deabru orrek  
non ote du zuloa?  
Axuri jaten arki baneza,  
moztu nezaio lepoa.

*Ce diable de renard  
ou a t-il donc son terrier?  
Si je le prenais à manger (des) agneau(x)  
je lui couperais le cou.*

(Or.)

(Haute Navarre)

2

Sei oillo falta zaizkigu  
etxeko oilatesian  
Azariak, arranoek  
zer afari duten jan.

*Il nous manque six poules  
dans le poulailler de cette maison.  
Les renards, les aigles  
quel repas ils ont mangé.*

(Or.)

(Haute Navarre)

3

Pizti guztiak iltzeko  
banintz eiztari trebe,  
inguruan bat bizirik  
damurik utziko nuke.

*Pour tuer tous les animaux sauvages  
si j'étais chasseur adroit,  
un seul vivant dans les environs  
à regret je laisserais.*

(Or.)

(Haute Navarre)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

4

Andre zabal, zure etxean  
oillorik ez dute ito  
ortaz eman dezazuke  
oillo, oillar, naiz ollasko.

(Or.)

*Généreuse maitresse, en votre maison  
ils n'ont pas étouffé de poules  
vous pourriez pour cela donner  
poule, coq ou bien poulet.*

(Haute Navarre)

5

Egazti onik ez balitz,  
zerriaren azpizuna,  
urdaï, arrautz edo ziztor,  
zuk gogara duzuna.

(Or.)

*S'il n'y avait pas de bon oiseau  
le filet de porc,  
cochonaille, oeuf ou saucisson,  
ce que vous désirez (nous offrir).*

(Haute Navarre)

6

Neguan eizatu genitun  
azkonarra ta arranoa,  
emen dakargu bizi bizirik  
azari buztan arroa.

(Or.)

*Nous avons chassé l'hiver  
le blaireau et l'aigle,  
nous apportons tout vif  
le renard(à) la queue bouffante.*

(Haute Navarre)

7

Sator buxtanak pinta bat ardo  
sapelatsak arraultz pare,  
oillo ta axuri galtzale onek  
zerbait geiago nai luke.

(Or.)

*La queue de taupe une pinte de vin  
le buse une paire d'oeufs,  
ce destructeur de poule et agneau  
pourrait vouloir quelque chose de plus.*

(Haute Navarre)

8

Oilloaz eskerrik asko  
badugu zerekin dantza.  
Etxe ontako Andre eskuzabal  
Jainkoak bedeika zaitza.

(Or.)

*Merci beaucoup pour la poule  
nous avons de quoi danser.  
La généreuse maitresse de cette maison  
que Dieu vous bénisse.*

(Haute Navarre)

D. PEILLEN

9

Axarko, lapur, zorrizu,  
zenbat ardikume galdu?  
Bana banaka oillo oetara  
begiak ortzak zorroztu  
guk jaten ditugun artean,  
ik egin ezak baru.

(Or.)

*Petit renard, voleur, pouilleux,  
combien d'agneau (as-tu) abimés?  
Un par un vers ces poules  
(tu as) les yeux(et) les dents aiguisés.  
tandis que nous les mangeons,  
toi fais ton jeûne.*

(Haute Navarre)

10

To oillo bat eta to oillo bi;  
or, muturrera ekarri,  
oillategian baiño lotugo  
gaisoak egonagati,  
ez diek eltzen. Aseta agola  
nai al diguk erakutsi.

(Or.)

*Tiens une poule et tiens deux poules;  
nous te les présentons au museau  
bien que mieux attachées qu'au poulailler  
elles restent immobiles les pauvres  
tu ne les saisis pas. Que tu es repu  
veux tu nous montrer.*

(Haute Navarre)

D. PEILLEN